



Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean

LOZANO SANTOS, Joseba

HAEEko administrazio hizkeraren arduraduna
Adriano VI kalea, 20
01008 Vitoria-Gasteiz

BIBLID [1137-1951 (1997), 1; 55-75]

"Benetan sentitzen dut eskutitz hau ohi baina luzeagoa izatea, baina ez dut astirik izan laburrago idazteko".
Blaise Pascal (XVII m.)

Orain dela gutxi lagun batek auto istripua izan zuen. Horren ondorioz, epailearen aurrean aurkeztu behar, eta handik gutxira, honako idazki hau jaso zuen etxean: "*Absuelto por falta de litisconsorcio pasivo necesario*". Lagunak, etsirik, ondorengo egunak eman zituen galdera hau behin eta berriro eginez: "*Orduan, zenbatekoa da multa?*".

Hori guztia pasadizoa baino ez da; hala ere, ondo islatzen du, nire ustez, nolako neke eta nahigabeak hartu ditugun den-denok noiz edo behin, batean ez bada bestean, idazki juridikoren batekin borrokan egin behar izan dugunean.

Honelako lanetan bada benetako arrisku bat: hausnarketa sakonak egitea, baina, teorikoegiak izateagatik, laguntza gutxi ematea horien beharrean dagoen ikasle edota profesionalari. Ez da hori, ez, nire asmoa.

Horrelakorik bilatzen duenak badu, izan, liburu ederrik bere jakinmina asebetetzeko. Bestelakoa da artikulu honen xedea; izan ere, bide eman nahi du euskara juridikoaren oraingo egoera ezagutzeko eta arazo batzuei irtenbide praktikoak aurkitzen saiatzeko. Hasi gaitezen, bada, luzamendutan ibili gabe.

1. Euskara juridikoaren ajeak eta urratuak

Hizkera juridikoaren kalitateak jasaten dituen kritikak gero eta ugariagoak dira; eta euskara ez da salbuespen horretan. Hizkuntzalariek idazki juridikoen kalitate eskasa eta zuzentasun falta salatzen dute. Zuzenbideko profesionalek euskarazko testuen eta itzulpenen zehaztasuna eta segurtasun juridikoa jartzen dituzte auzitan. Herritarrak, azkenik, hizkera juridikoaren hieroglifikoak ulertzen laguntzen dien *Rosetta* harriren bat aurkitu bitartean, teknolekto horren gehiegikeriaren aurka azaltzen dira. Edozein modutan ere, kritika horiek guztiak ulertzeko, ezinbestekoa da, nire iritziz, euskara juridikoaren berezitasun batzuk aipatzea¹.

1. Gai honetan sakondu nahi izanez gero, irakur ezazue liburu hau:
Andrés Urrutia, Anjel Lobera, *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao 1995.

1.1 Euskara juridikoak ez omen du tradiziorik

Historian barrena ur tanta batzuk baino ez dira izan erdal testu juridikoen itsasoa zipristindu duten euskarazko hitz eta esaldiak. Zuzenbideari dagokionez, hizkuntza erromantzeek hartu zuten gurean latinaren tokia Erdi Aroan, eta Aro Modernoan erdara berrien txanda izan da gure hizkuntzaren kaltetan.

Euskara, isolaturik, minorizaturik, eta kanpoko erreferentzia tipologikorik gabe, botere esparrutik kanpo ibili izan da luzaro, noraezean, eta garatu ezinik. Izan da, tartean, idazki juridikorik euskaraz, bai Iparraldean bai Hegoaldean (auziak, heredentziak, zorrak...). Baina horiek guztiak lantzean behin eta sistematikotasunik gabe plazaratu dira gehienetan.

Hala ere, testuak egon badaude, geuk uste baino gehiago; tamalez, orain arte ez gara gauza izan behar bezala ikertzeko. Jarraitu baino lehen, irakur dezagun segidako testu-zatia:

Art. 69 Siendo el bañarse una de las principales necesidades higiénicas, durante la época de los grandes calores; es un deber de la autoridad adoptar las medidas oportunas para la seguridad de las personas y para evitar lamentables desgracias; con tal fin, pues, se prohíbe bañarse en el río en ningún sitio, donde el agua tenga más de un metro de profundidad ó una corriente muy rápida; y en su consecuencia, los que quisieran bañarse, solo podrán hacerlo en los puntos señalados por la autoridad.
Ordenanzas municipales de la villa de Usurbil (Usurbil 1888)

Ikusten duzuenetz, gaia alde batera utzita, estiloa gaurkoa bezalakoa da, nahiz eta ordenantza horiek orain dela ehun urte baino gehiago idatziak izan. Oraingoan, irakurri urte hartan bertan euskarara egindako egokitzapena (ez baita hitzez hitzeko itzulpena):

69.garrena Bero aundiak diranean gorputzarentzat premiazkoa da bañua artzea. Baña ez da utziko bañurik artzen metro bat ur baño geyago dagon tokian, ez ta korrentak indar aundia daukanean ere, jendearen segurantzagatik, eta zorigaitzeko gertaerarik izan ez dadin.
Usurbil-ko erriyaren ordenantzak (Usurbil 1888)

Ulergarria, ezta? Orain alderatu itzulpen hori, egun han-hemen ikusten ditugunekin. Ehun urte igaro behar izan dira bide okerretik goazela eta aurreko teknika eta baliabide asko gaur egun erabilgarriak izan daitezkeela konturatzeko? Bitartean, testu horiek hortxe darraite, baten batek hautsa noiz kenduko zain; eta guk gaztelaniazko estiloaren iturrietara jo izan dugu. Hanka-sartzea? Hori denborak esango digu.

Hizkuntzalariek idazki juridikoen kalitate eskasa eta zuzentasun falta salatzen dute.

1.2 Euskaraz ia ez da testu juridikorik sortzen

Azken urteotan Euskal Autonomi Erkidegoko administrazioak arnasa eta hego berriak eman dizkio euskarari (tamalez, besterik da egoera Iparraldean, eta, neurri handi batean, baita Nafarroan ere). Bultzada horren eraginez, euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofizial bihurtu, eta oso denbora laburrean, inoiz ez edo gutxitan urratutako bideak ibili behar izan ditu.

Alde horretatik, erronka berri bati aurre egin behar izan dio; alegia, zuzenbideko mezuak legeetan, auzitegietan, administrazioetan, zuzenbide fakultateetan, eta beste hainbat esparrutan emateko gai izatea.

Horrenbestez, zenbait arrazoi direla-eta (tradizioa ez ezagutzea, idazki juridikoen erredaktore gehienak, orain arte behintzat, erdaraz ikasiak izatea...) esan daiteke, okerrik gabe nik uste, gaur egun euskaraz idatzitako testu juridiko gehien-gehienak euskarara egindako itzulpenak direla. Eta horrek, jakina, erantzukizun

... gaur egun euskaraz idatzitako testu juridiko gehien-gehienak euskarara egindako itzulpenak dela.

handiko zama ekarri die euskal itzultzaileen bizkarrei.

1.3 Gaztelaniazko testuen kalitatea zalantzatan

Gaztelaniazko jatorrizko bertsioren kalitatearen garrantzia begi bistakoa da; izan ere, erdaraz idatzitako testu juridiko bat, hizkuntza aldetik, txarra bada, nekez eska diezaiokegu itzultzaileari euskarazko bertsiokalitatezkoa egiteko.

Hizkuntzen kalitatearen auzia pil-pilean dago, eta ez bakarrik gure artean²; ageri-agerikoa da, esaterako, gaztelaniaren arazoaren larria. Gaurko hitz egiteko moduan, gaztelaniaz ez da harriztekoa ikasleei *unidad de módulo educacional* deitzea; edota gaixoei, *unidad elemental de atención sanitaria*, edo *titular pasivo de la acción administrativa en materia de sanidad*; eta haraino helduta, zergatik ez, *objeto humano receptor de la acción ejerciente de la sanidad*?³

Era berean, trenak ez dira ateratzen, *efectúan su salida*; kotxeak ez dira errebisatzen, *se procede a la correspondiente revisión de los vehículos*; jendea ez da hiltzen, *padece heridas incompatibles con la vida*.

Hizkera juridikoan, zoritxarrez, beste horrenbeste gertatzen da. Adibideak... zientoka. Erredaktoreek, kalitate faltaren salaketaren aurrean, hainbat atxakia jarri dituzte. Ikus ditzagun horietako batzuk⁴:

– **Hizkera juridikoa “erraztu” nahi izateak hizkuntzaren kalitateak behera egitea ekarriko du.**

Zuzenbidearen helburua ez da estetikoa edo artistikoa, ez eta literatur testuak sortzea ere. Hizkera juridikoaren asmoetatik nagusiena eskubideei, eginbeharrei, zigorrei eta onurei buruzko informazioa ematea da. Hortaz, testu

horiek euren eginkizuna bete dezakete, eta, era berean kalitatezkoak eta ulergarriagoak izan.

– **Hizkuntza ulergarria eta segurtasun juridikoa bateraezinak dira.**

Legelarientzat zehaztasuna da irizpidea eta helmuga, eta, euren iritziz, hizkuntzaren kalitateak ezin du kolokan jarri segurtasun juridikoa. Zehaztasuna ezinbestekoa da gutxitu egiten baitu liskarrak eta auziak gertatzeko arriskua. Baina, zer da segurtasun juridikoa? Termino horren esanahia Konstituzio Auzitegiaren epai batean dago jasota. Horra, bada, hitzez hitz:

“La exigencia del art. 9.3. C.E. relativa al principio de seguridad jurídica implica que el legislador debe perseguir la claridad y no la confusión normativa, debe procurar que, acerca de la materia sobre la que legisle, sepan los operadores jurídicos o los ciudadanos a qué atenerse, y debe huir de provocar situaciones objetivamente confusas (F.J.4)”.

... erdaraz idatzitako testu juridiko bat, hizkuntza aldetik, txarra bada, nekez eska diezaiokegu itzultzaileari euskarazko bertsiokalitatezkoa egiteko.

2. Irakurri Italo Calvinoren segidako testu-zatia:

“El funcionario está delante de la máquina de escribir. El interrogado, sentado ante él, contesta a las preguntas titubeando un poco, pero tratando de decir todo lo que tiene que decir en la forma más precisa y sin una palabra de más: ‘Esta mañana temprano fui al sótano para encender la estufa y encontré esas botellas de vino detrás del cajón del carbón. He cogido una para bebérmela en la cena. No sabía que la bodega de arriba hubiera sido descerrajada’. Impasible, el funcionario teclea velozmente su fiel transcripción: ‘El abajo firmante, habiéndose dirigido en las primeras horas de la mañana a los locales del sótano para poner en funcionamiento la instalación térmica, declara haber casualmente incurrido en el hallazgo de una cuantía de productos vinícolas, situados en posición posterior al recipiente destinado al contenido del combustible y de haber efectuado la extracción de uno de dichos artículos con intención de ingerirlo durante la comida vespertina, no hallándose en conocimiento de la fractura sobrevenida en el establecimiento situado en el piso superior’.

Todos los días, sobre todo de cien años a esta parte, por un proceso hoy ya automático, miles de nuestros conciudadanos traducen mentalmente a la velocidad de máquinas electrónicas la lengua italiana en una lengua inexistente. Abogados y funcionarios, gabinetes ministeriales y consejos de administración, redacciones de periódicos y de telediaros escriben, piensan y hablan en la antilengua.

Si el lenguaje ‘tecnológico’ del que nos habla Pasolini (es decir, el plenamente comunicativo, instrumental, homologador de los distintos usos) se inserta en la lengua, no hará más que enriquecerla, eliminando irracionalidades y lastres, dándole nuevas posibilidades (en principio sólo comunicativas, pero creando, como ha ocurrido siempre, un área propia de expresividad); pero si se inserta en la antilengua, se verá afectado de su contagio mortal y también los términos ‘tecnológicos’ se teñirán del color de la nada.”

Italo Calvino, “La antilengua”, *Punto y aparte. Ensayos sobre literatura y sociedad*, Bruguera, Barcelona 1983.

3. Joaquina Prades, “Sus embrolladas señorías”, *EL PAÍS*, 1996ko abenduaren 15a, 16. orr.

4. “Plain English and objections to it in the law”, *Plain English and the Law*, Law Reform Commission of Victoria, Australia 1990.

Hori horrela bada, zenbat testu juridikok betetzen du segurtasun juridikoaren printzipioa? Eta betetzen ez denetan –gehienetan, alegia–, beti bota dakiokoe errua itzultzaileari? Definizioa aztertu ondoren garbi baino garbiago geratu da anbiguitatea eta segurtasun juridikoa ezkontezinak direla, eta testu zehatza baina ulertezina testu zehazkabea baina ulergarria bezain arriskutsua dela; azken batean, kalitateak eta eraginkortasun komunikatiboak ez dute zertan izan zehaztasunaren etsai, beraren berme eta bultzagarri baizik⁵.

– Ezin da idatzi herritarrek ulertzeko moduko testu juridikorik

Testu juridikoen berezko hartzaileak, nolabait esateko, bezerorik garrantzitsuenak, zuzenbideko profesionalak dira. Baina, horrek ez du esan nahi testu horiek bakar-bakarrik direla egokiak, abokatuek, epaileek eta notarioek ulertzen badituzte. Irakurlerik kualifikatuena horietatik dira, bai; baina, ez dira bakarrik. Hortxe daude, besteak beste, Legebiltzarra (legeak sortzen dituztela kontuan izanik, logikaz behintzat, ulertu beharko lukete euren botuaz onartu edo baztertzen dutena)⁶, eta herritarrak (jakin dezakete zein diren beraien eskubideak eta betebeharrak, eta zertan eragiten dien legeak).

... ahaleginak egin behar dira idazkiak herritarrei hurbilarazteko eta testu juridikoak ahalik eta argien eta zehatzen idazteko

Gauzak dauden bezala, ezinezkoa da herritar guzti-guztiek ulertzeko moduko testu juridikoak idaztea, testu horien esanahiaz jabetzeko ezinbestekoa baita nozio juridiko batzuk ezagutzea; nolahi ere, zenbat eta ezagunagoa eta zehatzagoa izan testu baten hartzailea, orduan eta egokiago idatzi eta molda daiteke testu hori hartzaile horren ezaugarrietara⁷. Beraz, ahaleginak egin behar dira idazkiak herritarrei hurbilarazteko eta testu juridikoak ahalik eta argien eta zehatzen idazteko; hori guztiori, alde aurretik jakinda “guztientzako kafearekin” ez dugula inoiz bete-betean asmatuko, eta bat baino gehiago kaferik gabe geratuko dela.

– Ez dago astirik testu juridikoak horrenbeste arretaz idazteko

Testu juridikoak kalitatez eta ulergarri idaztea zaila da oso, hasieran behintzat. Esaera batek dioen bezala, ergelarentzat erreza da gauzak korapilatzea baina jakintsuak bakarrik aska dezake korapilo bat. Hala da. Ohituta gaude esaldiak puzten, luzatzen, eta askotan, baita trakesten ere, esaldi horiek dotoreagoak edo direlakoan. Hori erraza da. Baina, kontrakoa? Esaldi korapilotsuetan ezkututzen den ideia argi eta garbi aditzera ematea ez da lan samurra, ez eta gutxiago ere. Hortaz, adi ibili, hizkera erraza ez baita horren erraza idatzi behar duenarentzat.

Esanak esan, legelari batzuek ez dakite ondo idazten, eta hortxe jarraitzen dute, jotake, oraindik ere konturatu gabe jantzi dotoreek ez dakitela, berez, dotorezia. Beste batzuen kasua, berriz, larriagoa da: badirudi idazten badakitela, baita ederki idazten ere; baina estilo zaharkituari eusten diote, zeren eta, neurri batean edo bestean, hizkera juridikoa itzalaren eta prestigioaren sinbolo psikologikoa baita, legelariak eta gainontzekoak bereizten dituen⁸. Nire ustez, legelariak lortzen dituen emaitzei begira neurtu behar da prestigioa, eta ez, erabiltzen duen idazkera sasi-barrokoaren arabera⁹.

1.4 Erdal diskurtsoa geureganatu dugu

Lehenago aipatu ditugu gaztelaniaren estilo traktatsaren ondorioak. Hona, beraz, gure zalantza: euskaraz ere hasi ote gara sortzen

5. Irakur ezazue Robert D. Eagleson, “What lawyers need to know about plain language”, *Michigan Bar Journal*, 1994 urtarrila, 73. bolumena, 1. zenb.

6. Honetan sakontzeko ikus Josep Ferrer i Ferrer, “El llenguatge parlamentari i les lleis”, *Revista de Llengua i Dret*, 25. zenb., Escola d'Administració Pública de Catalunya, 1996ko uztaila, 55-67. orr.

7. Dietrich Busse, “La comprensibilitat de les lleis: un problema jurídic des del punt de vista lingüístic”, *Revista de Llengua i Dret*, 22. zenb., Escola d'Administració Pública de Catalunya, 1994ko abendua, 7. orr.

8. George Hathaway, “An overview of the Plain English Movement for lawyers... Ten years later”, *Michigan Bar Journal*, 1994 urtarrila, 73. bolumena, 1. zenb.

9. “En todo caso esta falsa idea tiene mucho que ver con una tendencia muy propia de nuestro tiempo a la corporativización de los lenguajes especiales, a la apropiación corporativa de los lenguajes técnicos como modo de marcar distancia social y afirmar el poder de los propietarios de los arcanos”. Ikus Jesús Prieto de Pedro, “La exigencia de un buen lenguaje jurídico y Estado de Derecho”, *Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetu nahian. Hizkera errazteari buruzko jardunaldiaren omentziak*, HAAE, Gasteiz 1996, 130. orr.



9. irudia

hizkera bat ahozko jardunarekin eta orain arteko literatur tradizioarekin zerikusirik ez duena, zehaztasunik gabeko egitura nahasietan oinarritzen dena, eta inguruko erdaren morroi bihurtu zaiguna? *Azaldu beharrea aurkitzen naiz, etxeen pintaketari ekingo zaio, Espainiako hiritartasunaren jabe da...* eta antihizkuntzan¹⁰ idatzitako hamaika adierazpide horiek ordezkatu behar al dituzte geure-geureak ditugunak: *azaldu behar dut, etxeak pintatuko dira* edota *Espainiako herritarra da?* Goi-mailakoak al dira batzuk eta arruntegiak besteak? Prozesua azaltzen saiatuko naiz:

Euskal idazlari edo itzultzaile gehienek orain arte jarraitu duten bidea honako hau izan da: ustezko erdara "jasoan" oinarritu, euskara "jasoa" eraikitzeko.

Erdara "jasoan" ⇒⇒⇒⇒⇒ Euskara "jasoa"

Horri dagokionez, gogora dezagun Edorta España itzultzailearen proposamena¹¹. Bere ustez, bideak desberdina izan behar du: alegia, erdara "jaso" horren mezuak deskodetu egin behar ditugu (testuan ezkututzen diren ideia nagusienak zerrendan jarri); ideia horiek euskarazko oinarritzko esaldi bihurtu; eta esaldiok euskarazko diskurtso modura egituratu, euskarak berak gure esku jartzen dituen tresnen laguntzaz.

Erdara "jasoan"

Euskara "jasoan"



Testua deskodetu ⇒ Mamia ⇒ Testua egituratu

Adibide bat:

El director abordó en una extensa disertación el tema de la actual problemática existente zuzenean itzultzen baldin badugu, horrelako zerbait izango dugu, antza, euskara jasoa: zuzendariak gaur egungo problematikaren gaiari heldu zion mintzaldi luze batean.

Baina, gaztelaniazko esaldi horren atzean horrelako ideia bat dago: *el director habló largo y tendido sobre los problemas de hoy en día.* Euskaraz: *zuzendariak asko hitz egin zuen gaur egungo arazoei buruz.* Eta dotoreago jartzekotan: *zuzendariak luze-zabal hitz egin zuen gaur egungo arazoaren gainean.* Zein da, bada, jasoagoa?

10. ikus 2. oinoharra.

11. Ikus Edorta España, "Desegin eta berregin", *Administrazioa euskaraz*, 16. zenb., HAEE, 1997ko apirila, 18. orr.

LOZANO, J. Zerbait argibide euskara juridikoaren gainean. *Eleria*. 1, 1997, 55-75

... benetako terminoak oso gutxi dira edozein lege testutan.

1.5 Terminologia auzitan

Joskera edota morfologiaren aldean, hizkera juridikoaren ezaugarri nabarmenena bere terminologia berezia da. Seguraski horrexegatik –eta baita diskurtsoaren gainean ia ez delako hausnarketarik egin– eztabaida gehienak terminologiaren alorrekoak izan dira. Erdal terminoen euskal ordainak aurkitzeko garaian komeria ugari izan da, eta erakunde bakoitzak “bere” terminoak erabili dituela esan daiteke.

Batzuk, zehaztasun juridikoaren kaltetan hitz berriak sortzen eta asmatzen ibili dira; beste batzuk, segurtasun juridiko horren atxakiatan, maileguetara lerratu dira, askotan, baita arinegi lerratu ere. Hori dela-eta, orain arte ez gara gauza izan erabili beharreko terminoak adosteko.

Baina, zer da termino juridiko bat? Galderari erantzuteko, lehenengo eta behin kontuan izan behar dugu hizkera juridikoa teknolektoa edo hizkera berezia izan arren, neurri

handi batean behintzat, soziolektoa ere badela. Badu, hortaz, zerikusirik estandararekin¹², eta, horren ondorioz, hitz gehienak ez dira termino juridikoak, hitz arruntak baizik¹³.

Horrenbestez, zenbaterainokoa da benetako terminologia? Joseph Kimble, Estatu Batuetako irakaslearen esanetan, benetako terminoak oso gutxi dira edozein lege testutan –ikerketa baten arabera, %3 baino gutxiago–. Bere ustez, gainontzekoa hizkera ulergarriagoan idatzi daiteke¹⁴.

Prieto de Pedro irakasleak bide beretik jotzen du: uste baino gutxiago dira benetako termino juridikoak¹⁵. Bestalde, gure Itzulpen Zerbitzuak itzuli duen azken legearen¹⁶ azterketa egin du gure Terminologi Atalak orain dela gutxi. Oraindik argitaratu ez den ikerketa horretako datuen arabera, lege horrek 27.164 hitz ditu; baina benetako terminoak –estu-estu jokatu gabe– %7 dira gutxi gora-behera.

Horrenbestez, badirudi testu juridikoetan bi motatako hitzak aurki ditzakegula: benetako termino juridikoak eta sasi-terminoak. Lehenak zehatzak, adiera bakarrekoak eta ekonomikoagoak direnez, errespetatu eta erabili egin behar dira beti. Besteak, gehienak alegia, molda daitezke eta moldatu egin behar ditugu, testuok argiagoak izan daitezen.

2. Euskal diskurtso juridikoaren oinarriak

Lehen esan dudan bezala, orain arte hizkera juridikoaren inguruko borroka gehienak terminologiari lotuta egon dira. Hori guztia egin

12. “Todo lenguaje especial depende estrechamente de la lengua, de cuya variedad es una manifestación y, por principio, sus elementos específicos tienen menor peso que los comunes. Esta regla también se cumple en el lenguaje legal, en lo relativo a su léxico que, en su mayor parte, pertenece al léxico común de la lengua. Sin embargo, el redactor parece olvidar a menudo este hecho, y tiende a enriquecer el léxico de las normas como si las palabras comunes, en sus acepciones más conocidas, fueran impropias del lenguaje legal. Este se refugia en una jerga, falsamente técnica, de voces de significado impreciso para los ciudadanos, en detrimento de otras voces de significado más terso y cercanas a su hablar espontáneo. Son los *constituye por es, contemplar por tener en cuenta, instancias por organismos, tratamiento por regulación, planteamiento por perspectiva o punto de vista, expira por termina o finaliza, conferir y otorgar por dar...*”
Jesús Prieto de Pedro, “Los vicios del lenguaje legal. Propuestas de estilo”, *Lenguas, lenguaje y derecho*, Civitas, Madrid 1991, 138. orr.
13. “La característica principal de la antilengua es lo que yo definiría como ‘terror semántico’, es decir, la huida de todo vocablo que tenga un significado en sí mismo, como si ‘botella’, ‘estufa’ o ‘carbón’ fuesen palabras obscenas, como si ‘ir’, ‘encontrar’ o ‘saber’ indicaran acciones infames. En la antilengua los significados son continuamente eludidos, relegados en el fondo a una perspectiva de vocablos que nada quieren decir en sí mismo o quieren decir algo vago e inaprensible”.
Italo Calvino, “La antilengua”, *Punto y aparte. Ensayos sobre literatura y sociedad*, Bruguera, Barcelona 1983, 161.-166. orr.
14. “Real terms of art are a tiny part of any legal document –less than three percent in one study”.
Joseph Kimble, “A brief look at legal writing and plain language”, *Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetu nahian. Hizkera errazteari buruzko jardunaldietako ponentziak*, HAE, Gasteiz 1996, 97. orr.
15. “No existen reglas áureas para el cálculo de la proporción entre lo común y lo específico en el lenguaje jurídico, si bien, según dicen los estudios, parece que los vocablos jurídicos alcanzan unos márgenes cuantitativos muy bajos, entre el 2 y el 5 por ciento. Pero hay una idea clara. Los juristas deben esforzarse para que los tecnicismos en el lenguaje jurídico queden, a modo de *odiosa sunt restringenda*, constreñidos a lo estrictamente imprescindible. Esta coerción sobre el léxico técnico que debe presidir el ánimo del jurista es una forma de acercar el lenguaje a los ciudadanos y de hacerlo más puro; y, por desgracia, lo usual es lo contrario, que las leyes, las sentencias judiciales y los escritos de los funcionarios sean técnicos en demasía, que empleen muchos más tecnicismos de los precisos para formular el derecho. Ha calado con gran fuerza, incluso en el ánimo de muchos juristas bienintencionados, la falsa idea de que cuanto más se cargue en el léxico jurídico, mejor derecho se hace”.
Jesús Prieto de Pedro, “La exigencia de un buen lenguaje jurídico y Estado de Derecho”, *Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetu nahian. Hizkera errazteari buruzko jardunaldietako ponentziak*, HAE, Gasteiz 1996, 130. orr.
16. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren 30/1992 Legea.

dugu euskal diskurtso juridikoa garatuta egongo balitz bezala; baina, errealitatea bestelakoa da oso: euskarazko lanabesak behar ditugu, erdarazko edukiak adierazteko.

Edozein kasutan ere, ez da nire asmoa harria bota eta eskua ezkutatzea: orain artekoa zalantzatan jartzea ez da nahikoa. Irtenbide bakarra euskal diskurtso juridiko geurea garatzea da. Zein dira, bada, diskurtso juridiko horren oinarriak? Nire ustez, ondorengo laurok:

- Komunikazioari berea ematea.
- Hizkuntz arazoak konpontzea.
- Testugintzaren garrantzia aitortzea.
- Testu juridikoen diseinua hobetzea.

2.1 Komunikazioa

Testu juridikoak, normalean, operadore juridikoen sortzen dituzte (funtzionarioak, epaileak, abokatuak, notarioak...). Egia da, bai, zuzenbidearen esparrutik kanpoko egilerik izan daitekeela (herritarren errekurtsoak, eskabideak...); eta egia da, baita, testu juridiko batek ekoizle bat baino gehiago izan dezakeela (testuok, maiz, esku askotatik pasa, eta aurreko idazki ugarien zordun izaten dira). Hala ere, esan daiteke, okerrik gabe nire ustean, zuzenbideko adituak direla testu juridiko gehien eta euren hizkera eta estiloaren erantzule nagusiak. Honaino garbi geratu da, beraz, zein den igorlea;

Arazorik larrienak, hala ere, herritarrentzako mezu juridikoekin gertatzen dira, horrelakoetan herritarren defentsa-gabezia erabatekoa baita.

baina... eta hartzailea? Nire iritziz, testu horien hartzaileak, nagusiki, hiru izan daitezke:

IGORLEA	HARTZAILEA
Operadore juridikoa	⇒⇒ Operadore juridikoa
Operadore juridikoa	⇒⇒ Operadore juridikoa eta herritarra
Operadore juridikoa	⇒⇒ Herritarra

• Operadore juridikoen arteko komunikazioen kasuan alderdi biek ezagutzen dituzte zuzenbidea bera eta bere teknolektoa edo hizkera berezia. Horrenbestez, solaskideen arteko zehaztasun juridikoa oso handia da, eta solaskide horiek, formaltasunez betetako teknolekto hori erabilia, ez dute inolako komunikazio arazorik. Hala gertatzen da, esate baterako, hizkera juridikoaren bi azpitalde hauekin: doktrinaren hizkerarekin, eta hizkera zientifiko eta pedagogikoarekin. Hortaz, ingurune akademiko edo profesionalean guztiz zilegi eta onargarri da ondorengo:

Kzren 1257.1. artikulua haxe xedatzen du: "kontratuek ondoreak izango dituzte alderdientzat eta euren jarausleentzat bakarrik; baina, azken horiei dagokienez, kontratuek ez dute eraginik izango, euretatik datozen eskubideak eta betebeharrak eskualdaezinak direnean, berez, itun bidez zein legearen aginduz". Hortik atera daiteke, hain zuzen ere, *kontratuaren erlatibotasuna*.

• Mezuak hartzaile bikoitza duenean edo izan dezakeenean sortzen zaigu lehen arazoa. Horrelako adibideak auzitegietan, legeen kasuan eta horrelakoetan gertatzen dira maiz. Hortaz, testu juridikoak idazten dituzten profesionalak oreka bilatu behar dute hizkera teknikoaren eta herritarrek zenbait mezu ulertzeko izan behar duten eskubide demokratikoaren artean¹⁷.

• Arazorik larrienak, hala ere, herritarrentzako mezu juridikoekin gertatzen dira, horrelakoetan herritarren defentsa-gabezia erabatekoa baita. Gaur egun, zuzenbideko profesional askok eta administrazioak, ohituraren ohituraz, eta komunikazioaren gutxieneko baldintzei erreparatu ere egin gabe, teknolektoan oinarritutako mezuak kaleratzen ditu; hau da, administrazio barruko diskurtsoa –eta horrek batzuetan dakarren guztia– esportatzen du, kontuan izan gabe herritarrek ez dakiela kode hori deskodetzen, eta garrantzitsuena, ez duela zertan jakin. Horrenbestez, hau bezalako testuak, eta askoz ere ilunagoak, jasotzen ditugu:

17. Pere Martí i Mainar, "Situació actual del Llenguatge administratiu en llengua catalana", *Revista de Llengua y Dret*, 25. zenb., Escola d'Administració Pública de Catalunya, 1996ko uztaila, 7.-29. orr.

Dada cuenta; recibido oficio del Gobierno Vasco, únase al ramo de su razón y habiendo finalizado el período probatorio, únense los ramos separados de prueba a los autos de su razón, a los efectos legales oportunos, constando el de la parte demandante de 17 folios, y el de la demandada de 34 folios. Se declara conclusa la discusión escrita y tratándose de asunto Especial en Materia de Personal queden los autos pendientes de designación de Ponente y Señalamiento de Votación y Fallos para cuando las atenciones de la Sala, lo permitan.

Herritar batek halako idazkia jasotzen duenean, eskubide osoa dauka egintzaren izaera eta edukia ezagutzeko. Hori lortu nahi badugu, gure jokabide komunikatiboa errotik aldatu beharra dago.

Idazkia hartzailearen ezaugarrietara hurbildu behar dugu (geure buruari galdetu gaiari buruz zenbat dakien, zein diren bere interesak, zer espero duen gugandik, zenbat urte duen, zein



10. irudia

Hizkera juridikoaren ezaugarriak behinena ez da ez ortografia ezta morfojoskera ere, terminologia baizik.

den bere kultura-maila...)¹⁸. Ahal denetan, testuarekin batera, marko teoriko bat ematen saiatu beharko genuke; eta horretan ez digu lotsarik eman behar lagungarri gerta daitezkeen tresnez baliatzeak: azalpenak, definizioak, adibideak, grafikoak etab. Era berean, formaltasuna arindu, eta beste diskurtso-mota batzuen baliabideak erabiltzen hasi beharko genuke. Hortxe dauzkagu, esaterako, kazetaritzaren eta publizitatearen teknikak.

Zuzentza administrazioak ezin du hizketa kriptiko eta kabalistikoa justifikatu. Zuzenbideko adituek ahaleginak eta bost egin behar dituzte euren mezuak ahalik eta zehatzen, argien eta laburren emateko, beharrezko segurtasun juridikoa arriskutan jarri gabe.

2.2 Hizkuntz arazoak

Ez dira atzo goizekoak testu juridiko askotan erabilitako hizkera traketsaren aurka egindako salaketak. Esaldi luzeak, gehiegizko nominalizazioak, gramatikako akatsak... horiek denek bat egiten dute batzuetan, eta ezin gaindituzko harresia eraikitzen dute testuaren eta irakurlearen artean¹⁹. Ez genuke nahi gramatika kontuetan gehiegi luzatu; nahiko genuke, bai, hausnarketarako botoi batzuk sakatu, eta teoria hutsean gelditu beharrean, adibide batzuk eskaini.

18. Ikus HAAE, "Solaskideak, media eta komunikazio-egoera", *Hizkera argiaren bidetik*, HAAE, Gasteiz 1994, 24. orr.

19. Liburu askok laguntzen dute estilo traketsaren korapiloa askatzen. Ikus, besterik ez bada, horietako batzuk:

- Robert D. Eagleson, *Writing in Plain English*, Australian Government Publishing Service, Canberra 1990.
- Barbara Walsh, *Communicating in writing*, Australian Government Publishing Service, Canberra 1989.
- Janice C. Redish, *How to write regulations and other legal documents in clear English*, Document Design Center, Washington 1991.
- Tom Goldstein, Jethro K. Lieberman, *The lawyer's guide to writing well*, University of California, California 1991.
- Richard Wydick, *Plain English for lawyers*, Carolina Academic Press Durham, North Carolina 1985.
- Barbara Child, *Drafting legal documents*, West Publishing Company, Minnesota 1992.
- Robert J. Martineau, *Drafting Legislation and rules in Plain English*, West Publishing Company, Minnesota 1992.
- Presidenza del Consiglio dei Ministri, *Codice di stile delle comunicazioni scritte ad uso delle amministrazioni pubbliche*, Roma 1993.

2.2.1 Ortografia

– Letra larriak

Euskaltzaindiak behin edo beste azaldu du noiz erabili behar diren letra larriak eta noiz xeheak²⁰; hala ere, askotan, gaztelaniaren gehiegikerian erori, eta letra larriz betetzen ditugu gure testuak. Labur bada ere, gogora ditzagun akatsik ohikoena:

– Plurala edo generikoa aipatzen dutenak txikiz idatzi behar dira: *Zuzenbideko Fakultateetan/ Zuzenbideko fakultateetan.

– Urtaro, hilabete eta asteko egunak ere, letra txikiz: *1997ko Urtarrilaren 30ean/1997ko urtarrilaren 30ean.

– Kargu ofizialak... txikiz: *Kulturako Sailburua/Kulturako sailburua

– Siglak eta laburdurak²¹

Siglak letra larriz eta tarteko punturik gabe idazten dira (**H.A.E.E./HAEE*). Lehendabizikoz aipatzean, izen osoa jaso behar dugu, eta sigla parentesi artean jarri.

Sigla eratzen bada, inportateena aise irakurri eta ahoskatzeko modukoa izatea da; horretarako ez da komeni lau letra baino gehiago izatea: **MHFGZ (Monitore-Hezitzaile Funtziotarako Gaitasun Ziurtagiria)*. Edo bokal bera elkarren segidan errepikatzea (*IVAP* errazago ahoskatzen da *HAEE* baino).

Laburdurak, bestalde, hitz baten edo hitz multzo baten ordezkioak dira, eta beti puntuz idatzi behar ditugu: *ik.* (ikus); *aip.* (aipamena); *at.* (atala). Nolanahi ere, testu juridikoetan laburdura gutxi erabiltzea komeni da, testua irakurri behar duenak ez baitu zertan jakin honako edo halako zeinuaren esanahia.

– Puntuazioa

Gure asmoa ez da, inolaz ere, puntuazioari buruzko oharrak ematea²²; bai, ordea, azpimarratzea testu juridiko gehienetan koma eta puntua besterik –kasurik hoberenean– ez dugula ikusten; eta horiek ere, askotan, gaizki erabili.

Begira ondorengo adibideetan koma bat gorabehera nola aldatzen den esaldiaren esanahia:

Dekretua sinatuta egon arren adierazitako epean, ez da indarrean jarriko.
Dekretua sinatuta egon arren, adierazitako epean ez da indarrean jarriko.

Puntuazio-markak, neurritz erabiltzen badira, lagungarriak ditugu, zalantzarik gabe, testu egokiak idazteko orduan; eta lan horretan ezin baztertu ditzakegu komaz eta puntuaz gaindiko markak, testu juridikoetan debekatuta daudela ematen badu ere.

2.2.2 Hiztegia

Hizkera juridikoaren ezaugarriak behinena ez da ez ortografia ezta morfojoskera ere, terminologia baizik. Termino horiek zuzenbidearen esperientzia eta jakintza biltzen dituzte, eta alde horretatik onak eta beharrezkoak dira²³; hala eta guztiz ere, testu juridiko batean oso-oso gutxi dira terminoak, eta idazlariaren lana termino horien eta hitz arrunten arteko proportzioa

... gaur egun ez da harritzekoa administrazioako erakunde bakoitzak eta fakultate bakoitzak kontzeptu bera adierazteko "bere" terminoak izatea.

20. Ortografiari buruzko kontuak, askoz ere sakonago, liburu honetan: Euskaltzaindia, *Hitz elkartuen osaera eta idazkera*, Euskaltzaindia, Bilbo 1992.

21. Honi buruz argitalpen ugari daude; batzuk aukeratzekotan, irakurri ondorengoak:

– Jesús Prieto de Pedro, "Los vicios del lenguaje legal. Propuestas de estilo", *Lenguas, lenguaje y derecho*, Civitas, Madrid 1991, 133.-135. orr.

– UZEI, *Laburtzapenen gidaliburua*, UZEI, Lizarra 1988.

– Xabier Armendaritz, "Laburtzapenak", *Administrazioa euskaraz*, 2. zenb., HAEE, 1993ko urria, 18. orr.

22. Ikuspegi zabalagorako ikus Joxe Ramon Zubimendi, Pello Esnal, *Idazkera-liburua*, Kultura Saila, Gasteiz 1993.

23. Jesús Prieto de Pedro, "Los vicios del lenguaje legal. Propuestas de estilo", *Lenguas, lenguaje y derecho*, Civitas, Madrid 1991, 141. orr.

LOZANO, J. Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean. *Eleria*. 1, 1997, 55-75

bermatzea da²⁴. Euskal hiztegi juridikoari dagokionez, azter ditzagun zenbait arazo²⁵.

– Bateratutako hitzak

Lehen esan bezala, gaur egun ez da harritzekoa administrazioko erakunde bakoitzak eta fakultate bakoitzak kontzeptu bera adierazteko “bere” terminoak izatea. Hainbeste hitz ezberdin erabiltzea aberasgarri baino irakurlearen nahasgarri gertatzen da. Gogora dezagun 1995eko martxotik erakunde askok osatutako talde bat lanean ari dela, HAEEren zuzendaritzapean, administrazioko hiztegi bateratu bat egiteko. Seguraski, talde horren diseinua eta lan-metodologia erabil daitezke, arlo juridikoan antzeko bateratze-saioren bati ekiteko. Horra hor beste apostu bat etorkizunerako.

– Maileguak

Testu juridikoak idazten dituenak kontu handiz ibili behar du beste hizkuntza bateko hitzak bereganatzeko orduan. Bide hori, berez, zilegi da, eta betidanik erabili izan dugu euskaraz; dena den, *aktibitate espezifikoa*, *debatea*, *numeroa*, *antikonstituzionala* eta horrelako hitzez baliatu aurretik, erredaktoreak galdetu beharko lioke bere buruari ea euskaraz ideia bera adierazteko ez ote daukagun beste hitzik; ea aukeratutako maileguak beste hitzak eratortzeko balio duen; eta ea nolako harrera egingo dioten testuaren erabiltzaileek termino horri²⁶. Hori egiten ez dugun bitartean, honelako testuak eguneroko lelo bihurtuko zaizkigu:

Berebat dio: Epai hori betetzeko, Epategi horri errekeritzen zaiola, ofiziatu ditzala jarraiango banketxeak, enbarga ditzaten demandatuak modu indibidual, amankomun edo solidarioan, organismo edo entitate horietan eduki ditzakeen saldoak, kontu korranteetakoak edo beste edozerenak, exekutatzailari printzipalkia eta kostuak ordain darizkion...

– Hitz “garbiak”

Erredaktoreak aurrekoan bere buruari egin beharreko hiru galderek ederki asko balio dute hitz garbien kasuan ere. Hitz horien ezaugarriak nabarmenena honakoa da: kanpoko hizkuntzetatik ekarritako hitzak baztertu, eta

kontzeptu berriak aditzera emateko, hitz zaharrak, hedapen txikikoak eta, kasurik gehienetan, asmatutakoak proposatzen direla. Halakoak ditugu ondorengoak: *bakarreango ihardute-saila*, *jesanean hartu*, *herri-jabetzapeko baltzu...*; eta halako kutsua du segidako testu honek:

Irabaziak edo etekinak egoztezkotan, jaurpide horren menpeko erakundeekiko izpide eta ikuskaketarako aginte-eskua haien zergalaritza-egoitzako Arduralaritzak izango du.

– Latinismoak

Hizkera juridikoan zehaztasun handiko terminoak izaten dira, usu, latinismoak (*quorum*, *habeas corpus*, *ex iure...*). Beste batzuetan, zorritzarrez, dotorezia eta jantzitasuna agertzeko sartzen dira testuetan (gogoratu, sartu, gaizki sartzen direla frankotan). Esaterako²⁷:

*de motu propio/motu proprio

*status quo/statu quo

*a grosso modo/grosso modo

*desideratum batzuk/desiderata batzuk

**Hizkera juridikoak
hain maite dituen
formula horiek,
ohituraren izenean,
esaldiak puztu, ilundu
eta luzatzen dituzte.**

– Hitz ezagunak

Sinonimoak aukeran ditugunean kontzeptu bera adierazteko, hedatuenaren alde egiteak

24. Jesús Prieto de Pedro, “Los vicios del lenguaje legal. Propuestas de estilo”, *Lenguas, lenguaje y derecho*, Civitas, Madrid 1991, 138. orr. Irakurri segidakoa:

“El redactor legal tiene, en general, bastante que hacer en pro de la claridad:

– buscando un mejor equilibrio entre el léxico común y léxico técnico, en el que éste se limite a lo imprescindible.

– seleccionando el léxico común entre aquellas palabras más asentadas en la lengua y con significados más claros y concretos; es decir, optando por la máxima naturalidad.

– aliviando los textos legales de toda verborrea hueca o innecesaria.

25. Ikus “Hitz aproposak erabiltzea”, *Hizkera argiaren bidetik*, HAEE, Gasteiz 1994, 55.-61. orr.

26. Ikus Jesús Prieto de Pedro, “Los vicios del lenguaje legal. Propuestas de estilo”, *Lenguas, lenguaje y derecho*, Civitas, Madrid 1991, 145. orr.

27. Ikus Agencia EFE, *Manual de español urgente*, Cátedra, Madrid 1986, edota hori bezalako eskuliburuak (ABC, El País, El Mundo...).

dirudi bidezkoena²⁸. Beraz, hobe eskuineko zutabekoak:

egongua	egoitza, bizilekua
saloa	proposamena
xedeman	atxiki

– Hitz laburrak

Maiz, ideia bera emateko bi hitz izaten ditugu, erro berekoak, baina luzera ezberdinekoak. Badirudi errazago hartzen ditugula gogoan eta gorde hitz laburrak. Hobestekoak dira, hortaz, eskuinekoak:

sakonki	sakon
araupetzea	arautzea
legezkotasunez	legez

– Hitz bakunak

Hizkera juridikoan gero eta indartsuagoa da hitz abstraktueterako joera; eta, hain zuzen ere, horrexegatik aukeraten ditugu izen multzokariak hitz bakunen kaltetan. Horren inguruan, esan dezagun naturalagoa ematen duela euskaraz hitz bakuna pluralean emateak, kolektiboak adierazteko. Aukeran, beraz, eskuinekoak nahiago:

estolderia	estoldak
biztanleria	biztanleak

– Izen abstraktuak

Gaztelaniak euskarak baino joera handiagoa du izen abstraktueterako; eta horrek badu islarik, zalantzarik gabe, euskal testu juridikoetan. Izen abstraktuen presentzia ukatu gabe, gehiegikeriari aurre egiteko unea iritsi zaigula uste dut:

En caso de ausencia o enfermedad del alcalde. Alkatearen kanpoaldi edo gaixotasunaren kasuan. Alkatea kanpoan edo gaixorik badago. (hobea)

– Alferreko hitzak

Itzulpenetan, gaztelaniaren eraginez normalean, izena, aditza edo aditz izena jarri beharrean, "izena+aditz hutsa" lokuziora jotzen dugu sistematikoki. Betelanean ezkututzen gara

... Izen abstraktuen presentzia ukatu gabe, gehiegikeriari aurre egiteko unea iritsi zaigula uste dut.

ez dugulako sinesten hitz batek soilik, are gutxiago egunerokoa bada, hitz-katea baten informazioa eman dezakeenik. Oker gabiltza:

Garbiketa lanak gauzatzea
Garbitzea
Koordinaketa eginkizunetan aritzea
Koordinatzea
Sustatze ekintzei ekitea
Sustatzea

– Finkatutako formulak, lokuzioak eta erreplikapenak

Hizkera juridikoak hain maite dituen formula horiek, ohituraren izenean, esaldiak puztu, ilundu eta luzatzen dituzte, arrazoirik gabe²⁹. Begira ondorengo itzulpena. Lehen bertsioan gaztelaniaren lokuzio bat jasotzen da bere horretan; bigarrenean, berriz, baztertu. Zeini deritzozu egokien?:

Ezin da errekurtsorik aurkeztu arbuioaren gaineko ebazpenaren aurka, jardunbidea amaitzen duen egintzaren aurkako errekurtsioa aurkeztean arbuioaren arrazoibideak agertzearen kalterik gabe (sin perjuicio de).

Ezin da errekurtsorik aurkeztu arbuioaren gaineko ebazpenaren aurka; hala ere, (sin perjuicio de) arbuioaren arrazoibideak aurkez daitezke jardunbidea amaitzen duen egintzaren aurkako errekurtsioan.

28. National Consumer Council, *Plain words for consumers*, NCC, London 1984.

29. "Las fórmulas, en general, contribuyen a complicar la sintaxis de los textos administrativos, bastante recargada ya por la acumulación de muchos elementos lingüísticos innecesarios e inútiles al mismo tiempo que permiten la posibilidad de utilizar un conjunto estandarizado de comportamientos neutrales que evitan el esfuerzo intelectual y lingüístico de la creación original y al mismo tiempo ocultan y defienden de posibles riesgos de equivocaciones a los funcionarios".

Luciana Calvo Ramos, "El subcódigo de la etiqueta en lenguaje administrativo castellano", *Revista de Lengua i Dret*, 5. zenb., Escola d'Administració Pública de Catalunya, 1985eko ekaina, 75.-92. orr.

... euskarak, berriz, berezkoago-edo ditu koordinazioa eta justaposizioa esaldiak elkartzeko.

– Tratamenduak

Gaztelaniaz ia-ia kargu bakoitzak bere errespetuko marka edo tratamendua du³⁰: *Excelentísimo, Ilustrísima...* Euskaraz ere, hala behar omen eta, izan, baditugu: *Jaun/Andre txit gorenaren prestua-argia...* Baina, *jauna* edo *andrea* duintasun osoaren jabe dira, eta edozeini zor zaion begirunea adierazten da hitz horiekin³¹.

– Leungarriak³²

Gai honetan ezin erantzun biribilik eman: noiz edo behin erabili beharko dira leungarriak; hala eta guztiz ere, gaztelaniazko testuetan gero eta ugariagoak dira³³, eta geure buruari galdetu beharko genioke ea euskaraz bide beretik jarraitu behar dugun ala ez:

Invidente	Itsua
Miembros de la tercera edad	Zaharrak
Ha sido apartado de la dirección del departamento	Zuzendaritzatik kendu dute

– Hizkera sexista

Zorionez-edo ez dugu inguruko hizkuntzek beste arazorik hizkera sexistaren auzian. Edozelan ere, akats batzuk bazter utzi behar ditugu, eta eutsi euskarak berezkoa duen joerari³⁴:

*Legegizonak	Legelariak
*Jaunak	Jaun-andreak

Erdarazko testuak euskaratzen ari garela, adi ibili aldameneko hizkuntza horiek hizkera sexista saihesteko erabiltzen dituzten perifrasiak. Esate baterako, gertatu izan da inoiz *fumadores* esan beharrean, *población fumadora* esatea; eta guk euskaraz, jakina, *populazio erretzaillea*, kontuan izan gabe guretzat *erretzailleak* hitzak ez duela inolako kutsu sexistarik³⁵.

2.2.3 Morfojoskera

– Esaldi laburrak

Esaldi laburrak, eskuarki, ulergarriagoak izaten dira luzeak baino. Horrek ez du esan nahi esaldi luzerik ezin idatzi daitekeenik, edota esaldi luze guztiak ulergaitzak direnik. Horrek esan nahi duena da kontuz eta tentuz ibili behar dugula esaldi luzeak idazteko orduan: teknika batzuk ezagutu behar dira horretarako.

Hori horrela, eta gogoan izanik irakurle arruntak nekez uler dezakeela eta buruan gorde 25 hitz baino gehiago duen esaldirik, nola zabal daitezke zuzenbideko hizkeran hain normalak diren 100 hitz baino gehiagoko esaldiak? 30/1992 Legearen ondorengo artikulua guk itzulitakoa da; ikusiko duzuen bezala, gertu-gertu jarraitu diogu –luzeran behintzat– gaztelaniari:

Herritarrek errejistroetara eta espediente baten atal izanik administrazio-agiritegiren batean dauden agirietara heltzeko eskubidea dute,

30. "Por consiguiente más que 'humillar' al ciudadano dándose títulos y tratamientos pomposos y barrocos, la Administración española lo que hace empleando fórmulas desfasadas e ineficaces en sus relaciones de etiqueta es sencillamente el ridículo."
Luciana Calvo Ramos, "El subcódigo de la etiqueta en lenguaje administrativo castellano", *Revista de Lengua i Dret*, 5. zenb., Escola d'Administració Pública de Catalunya, 1985eko ekaina, 75.-92. orr.
31. ".../... Gaztelaniazko aurkezpenetan denak ziren *ilustrísimoak* eta *excelentísimoak*; *txit argiak* eta *txit gorenak* euskarazkoetan. *Monsieur* edo *madame* besterik ez frantsesez; eta *mister* eta *mistress* nahikoa ingelesez. Zein da ondorioa? Gutxienez *jaun txit gorenaren* izan behar dela *monsieur*-en kategoriara heltzeko? Jai dugu, hortaz, jaun edo andre hutsok. Honetan ere lan nekeza Europan sartze hori".
Kaxildo Alkorta, "Excelentísimo señor ministro, excelentísimos señores pastores", *Administrazioa euskaraz*, 15 zenb., HAEE, 1997ko urtarrila, 19. orr.
32. Adibide ugari, liburu honetan: Anne Pauwels, *Non-discriminatory Language*, Australian Government Publishing Service, Canberra 1991.
33. "El lenguaje políticamente correcto es sólo el rostro contemporáneo de un nuevo intento ideológico para imponerse sobre la libertad de pensamiento y la reflexión.../... Compete a los políticos (directamente) plegarse a los dictados de esa nueva demagogia, en función de sus previsiones electorales, o resistirse a los mismos en un valeroso ejercicio de inteligencia y autoestima.../... Pero sobre todo me resisto a creer que la asunción de un principio democrático me obligue a perpetrar frases como ésta: *El afroamericano llegó al centro de readaptación de niños/as discapacitados/as para trabajar como asesor de técnicas de optimización hidráulica*. Es una enunciación literaria imposible, tratándose de un hojalatero negro que acude a un hospital.../...El lenguaje políticamente correcto es una amenaza intelectual y un insulto a la inteligencia humana".
Pedro Ugarte, "Lo correcto y la literatura", *El Correo Español*, urtarrilaren 28a, 28. orr.
34. HAEE, *HAEEko estilo liburua*, HAEE, Gasteiz 1996, 11. orr.
35. Adibide hori ondorengo liburutik jaso dut: HAEE, *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*, HAEE, Gasteiz 1997.

edozein agermoldetakoak direla, idatzizkoak, entzunezkoak ala irudizkoak izan eta euskarri batean zein bestean egon, beti ere, espedientearen eskabidearen egunerako amaituta dauden jardunbideetakoak badira.

Gauza jakina da gaztelaniak menpeko esaldiak erabiltzeko joera handia duela; euskarak, berriz, berezkoago-edo ditu koordinazioa eta justaposizioa esaldiak elkartzeko. Begira orain artikuluko hori, baina hainbat esalditan banaturik. Hobeto ulertzen al duzu?:

37.1. Herritarrek erregistroetara eta agiritara heltzeko eskubidea dute, agiri horiek espedienterik batekoak badira eta administrazioko artxiboren batean badaude. Agiriak idatzizkoak, entzunezkoak edo irudizkoak izan daitezke, eta euskarri batean zein bestean egon. Nolanahi ere, espedienteak ikusteko eskabidea egiten den egunean, espediente horren jardunbideak amaituta egon behar du.

Segidako adibidean urrutirago heldu gara. Irakurri erdarazko jatorrizko testuari jarraiki egindako itzulpena:

38.3 .../... Egin dadin idazpen bakoitzean, zenbakia, bere ezaugarriak biltzen dituen epigrafea, sarrera-eguna, aurkezpen-eguna eta ordua, interesdunaren eta, hala badagokio, administrazio-organo igorlearen eta lagun edo administrazio-organo hartzailearen izenak eta, behar izanez gero, zerrendatzen den idazki edo mezuaren edukiari buruzko aipamena jasoko direla ziurtatuko du sistemak.

Orokorrean esan daiteke aditza dela informaziorik gehien eskaintzen duen esaldiaren atala eta, hortaz, zenbat eta aurrerago egon, orduan eta errazago zaigula informazio hori.

Oraingoan datuak elkarren segidan eta esaldi amaigabe batean eman beharrean, banan-banan eta berezitatea eman ditugu. Segurtasun juridikoa kolokan ote?:

38.3 .../... Sistema informatikoak bermatu behar du idazpenetan honako hauek jasotzen direla:

- Zenbakia.
- Epigrafea, idazkiaren ezaugarriak bildurik.
- Zein egunetan sartu den.
- Zein egunetan eta zein ordutan aurkeztu den idazkia.
- Interesdunaren eta, hala badagokio, organo igorlearen eta pertsonaren edo organo hartzailearen izenak.
- Idazki edo mezuaren edukiari buruzko aipamena, behar izanez gero.

– Aposizioak

Hizkera juridikoan oso zabaldua dagoen joera ekarri nahi izan dugu hona: aposizio ugari erabiltzea. Euskaraz ere, mimesiz-edo, horretara lerratzen gara askotan³⁶:

Agindua, 1994ko maiatzaren 2koa (1), Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuarena (2), martxoaren 17ko 70/1993 Dekretuaren bidez (1993ko martxoaren 28ko EHAA)(3), eta hori garatzeko 1993ko ekainaren 15ean emandako Aginduaren (1993ko uztailaren 3ko EHAA)(4) eta 1993ko urriaren 11ko Aginduaren bidez (1993ko urriaren 20ko EHAA)(5) araututako diru-laguntzak jasoko dituztenen zerrendak argitaratzen dituen (6).

Aposizioei zenbaki bana jarri diegu aldamenen. Ikusi testu bera beste era batera emanda. Onargarria? Baietz uste dugu:

Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako sailburuaren Agindua (1994ko maiatzak 2). Agindu horren bidez diru-laguntza batzuk jasoko dituztenen zerrendak argitaratzen dira.

Hona diru-laguntza horiek jaso ahal izateko betebeharrak eta gainontzekoak arautzen dituzten xedapenak:

- Martxoaren 17ko 70/1993 Dekretua (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria* –EHAA–, 1993-03-28).
- 1993ko ekainaren 15eko Agindua (EHAA, 1993-07-03), aurreko dekretua garatzen duena.
- 1993ko urriaren 11ko Agindua (EHAA, 1993-10-20).

– Joskera informazioaren zerbitzura

Orain arte nagusiki saldu diguten ideia arabera, euskal aditzaren berezko tokia

36. Ikus Juan Garzia, "Galdegai arrunta eta aposizioa", *Administrazioa euskaraz*, 14. zenb., HAEE, 1996ko urria, 16. orr.

esaldiaren amaiera da. Hori ez da beti horrela izaten; eta ikerketa batzuek esaten dutenari jarraiki, ez da beti horrela izan³⁷. Orokorrean esan daiteke aditza dela informaziorik gehien eskaintzen duen esaldiaren atala, eta, hortaz, zenbat eta aurrerago egon, orduan eta errazago zaigula informazio hori³⁸. Jakina, horrek ez du esan nahi aditza beti, eta, nola edo hala, aurreratu daitekeenik, baizik eta bide batzuk daudela aditza esaldiaren amaieran egotera ez kondenatzeko. Ikusi ondorengo teknikak:

– Galdegaia eta aditza aurreratzea:

Mintegi horrek euskal zuzenbidearen oinarriak zabaltzeko eta ezagutarazteko hartu dituen lanak eta nekeak aipatzeko modukoak iruditzen zaizkigu.

Aipatzeko modukoak iruditzen zaizkigu mintegi horrek euskal zuzenbidearen oinarriak zabaltzeko eta ezagutarazteko hartu dituen lanak eta nekeak.

– Definizioak:

Ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duen idatzizko aitorten ofiziala da egiaztagiria.

Egiaztagiria da idatzizko aitorten ofizial bat, ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela baieztatzen duena.

– Aditz deklaratiiboak:

George Maher jaunak zer-nolako lanak egin dituzten bere erakundearen hizkera argia eta ulergarria bultzatzeko azalduko digu.

George Maher jaunak azalduko digu zer-nolako lanak egin dituzten bere erakundearen hizkera argia eta ulergarria bultzatzeko.

... nominalizaziorako joera hori geureganatzen dugunean sortzen da arrazoa.

– Galdegai faltsuak:

Administrazio barruko zein kanpoko komunikazioetan nolabaiteko formaltasuna gorde behar dela ziurta dezakegu.

Zalantzarik gabe ziurta dezakegu nolabaiteko formaltasuna gorde behar dela administrazio barruko zein kanpoko komunikazioetan.

– Zerrendak:

Bilera horretan alkateak, zinegotzi batzuek, idazkariak, sindikatuetao kideek eta herritarren ordezkariak parte hartuko dute.

Bilera horretan parte hartuko dute alkateak, zinegotzi batzuek, idazkariak, sindikatuetao kideek eta herritarren ordezkariak.

– Aditz iragalea:

Arlo batzarrean hartutako akordioak bai horretan aginpidea duen edo duten ministroek, bai autonomi elkarteetako doakien gobernu-organoeetako arduradunek izenpetuko dituzte.

Arlo batzarrean hartutako akordioak izenpetu, bai horretan aginpidea duen edo duten ministroek, bai autonomi elkarteetako doakien gobernu-organoeetako arduradunek izenpetuko dituzte.

– Ezezkoak:

Horrekin ez dugu liburu honetan bildutakoek euskararen zuzentasuna eta kalitatea ziurtatuko dutenik esan nahi, ezta hurrik ere.

Horrekin ez dugu esan nahi liburu honetan bildutakoek euskararen zuzentasuna eta kalitatea ziurtatuko dutenik, ezta hurrik ere.

– Kataforak:

Hauetako bat baino gehiago onargarri denean norbanakoaren askatasuna gutxien murrizten duena aukeratuko da.

Hauetako bat baino gehiago onargarri denean haxe aukeratuko da: norbanakoaren askatasuna gutxien murrizten duena.

Joskeraren kontu honekin batera beste puntu bat aztertu nahi nuke. Orohar, bi bide nagusi dago mezua emateko: informazioaren funtsa esaldiaren hasieran (sekuentzia funtzionala) edota amaieran ematea (sekuentzia logikoa). Funtzionaltasun komunikatiboari begira garbi dago lehen bidea dela egokiena. Ikusi adibideak. Lehena, gaztelaniaren bertsioaren morroi; bigarrena libreagoa:

37. Bittor Hidalgo "Euskal joskeraren mito kaltegarriak. Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean", *Hizpide*, 35 zenb., 1996 urtarrila-apirila, 39.-51. orr.

38. Joxe Ramon Zubimendi, Pello Esnal, *Idazkera-liburua*, Kultura Saila, Gasteiz 1993, 199.-208. orr.

LOZANO, J. Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean. *Eleria*. 1, 1997, 55-75

27.3 Gehiengoaren erabakiaz besteko iritzia duten kideek, idatziz eta berrogeita zortzi orduko epean, beren aparteko botoa eman dezakete (informazio nagusia), eta onartatuko testuari erantsiko zaio.

27.3 Kideek boto partikularra eman dezakete (informazio nagusia) idatziz, gehiengoaren erabakiarekin bat ez badatoz; hori egiteko berrogeita zortzi ordu izango dituzte. Boto partikularrak onartutako testuan jasoko dira.

– Izenaren orde, aditza

Gaztelaniaz halako hizkera “jasoan” hitz egin edo idatzi nahi bada, nabari-nabaria da estilo nominalerako joera. Badirudi aditzak kendu eta euren orde izenak jarrita, hizkera arruntetik ihes egitea lortzen dugula. Bada, gaztelaniaren estilo sasi-jaso hori euskararen estilo jasoarekin identifikatzen, eta nominalizaziorako joera hori geureganatzen dugunean sortzen da arazoa. Nire iritziz, euskaraz aurre egin behar diogu atzizkidun hitz abstraktoen ugarikeriari, mezua ilundu eta ekintza indarrrik gabe utz dezakete eta. Ekintza horiek adierazteko aditzak ditugu: horixe izaten da baliabiderik berezkoena eta behinena. Begira segidako adibideari. Lehena, gaztelaniaren estilotik hurbil, euskal hitzak erabilita. Bigarrena, euskaraz:

17.1. Administrazio-organoetako arduradunak horiek izendatzeko organo eskumendunak aukera ditzanak ordezkatu ahal izango ditu aldi baterako, hutsune, kanpoaldi edo gaixotasunik gertatuz gero.

17.1. Administrazio-organoren batean titularrik ez bada edota kanpoan edo gaixorik badago, aldi baterako ordezkoa jar dezake titularrak izendatzeko eskumena duen organoak.

Aurreko beste adibide batean ikusi dugun bezala, zehar galderak erabiltzea bide ona izan daiteke, esaldiak naturalagoak izan daitezen:

38.3 .../... Egin dadin idazpen bakoitzean,... sarrera-eguna, aurkezpen-eguna eta ordua jasoko direla ziurtatuko du sistemak.

38.3 .../... Sistema informatikoak bermatu behar du idazpenetan honako hauek jasotzen direla:

- ...
- Zein egunetan sartu den.
- Zein egunetan eta zein ordutan aurkeztu den idazkia.

– Ahozko erregistrotik hurbilago

Euskarak berezko dituen egitura jator batzuk baztertu izan ditugu hizkera juridikotik, arrunkeiak-edo zirelakoan. Hala ere, ez digu lotsarik eman behar herritarren ahozko



11. irudia

erregistrotik hurbilago dauden egitura batzuk erabiltzeak, askotan, indar komunikatibo handiagoa baitute:

5.2. Arlo-batzar bakoitzaren gaiari buruz aginpidea duen edo duten ministroek deituko dute arlo-batzarra.

5.2. Arlo-batzarraren gaia zein, horretan aginpidea duen edo duten ministroek egingo dute deia.

– Esaldi inbertsonalak

Testu juridikoen idazlaria anonimoa izaten da askotan, eta ona da horrela izatea; horrek ez du esan nahi, ordea, ahaleginak egin behar ez ditugunik esaldien sujetoak edota ekintzen egileak zein diren argitzeko. Gauzak ilunago daude hartzailearen kasuan; batzuetan, ez zaie izenik ematen; beste batzuetan, halako izenak: *administratua, errekurtsogilea, izangaia, interesatua, norbanakoa, dagokiona, hirugarren interesatua...*³⁹ Adi adibideei. Lehenengoan, ekintzaren egilea misterioaren lanbroetan gordetzen da. Bigarrenean, berriz, ageri-agerian dago:

40.2. Bertaratzea beharrezkoa den kasuetan, berariaz aipatuko da deian bertaratzeko tokia,

39. Jexux Eizagirre, “Administrazioan ere nork edo nork egiten ditu egin beharrekoak”, *Administrazioa euskaraz*, 6. zenb., HAAE, 1994eko urria, 19. orr.

LOZANO, J. Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean. *Eleria*. 1, 1997, 55-75

eguna, ordua eta zertarakoa, eta baita bertaratze ezaren ondorioak ere.

40.2. Herritarrek bertaratu behar dutenean, berariaz adieraziko zaie deian nora, zein egunetan, eta zertarako bertaratu behar duten; eta baita bertaratu ezean gerta litezkeen ondorioak ere.

– Esaldi pasiboak

Egitura pasiboak ugaritzen ari zaizkigu euskaraz, batez ere, itzulpengintzaren bidez. Euskaraz bada egitura hori, batipat ekialdeko euskalkietan, baina hegoaldean egitura pasiboetarako baino joera handiagoa izan dugu aktiboetarako⁴⁰. Hobe da, beraz, testu juridikoetan egitura aktiboak bultzatzea, estilo arinagoa eta biziagoa lortzen baita horrela. Jarraian, bi adibide. Ikusi horien arteko aldea:

ODEI AGIRRE ZALDUAK... ESATEN DU:
Ezen errekeritua izan dela, lau eguneko epemugan, demandako idazkian aurkitutako akatsa konpontzera.

ODEI AGIRRE ZALDUAK... ESATEN DU:
Lau egun eman dizkietela demandako idazkian aurkitutako akatsa zuzentzeko.

– Aditzaren modua eta tempusa

Testu juridiko batzuen ezaugarriak direla-eta (baldintzak, premisak, ondorioak, eginbeharrak...), gaztelaniaz erruz erabiltzen dira subjuntibozko egiturak: orainaldikoak, iraganekoak eta geroaldikoak. Euskal tradizioari begiratzuz gero, horrelakorik badagoela ikusiko genuke; dena dela, badirudi horiek baino normalagoak eta naturalagoak direla indikatibozko formak gaur egun:

42.2 Interesdunek aurkeztu ditzaten eskabideak ebazteko gehieneko epea, kasu bakoitzean ezarri beharreko jardunbidearen izapideek har dezatena izango da.

42.2 Interesdunek aurkeztutako eskabideak ebazteko epea, gehienez ere, kasuan kasuko jardunbidearen izapideetarako behar dena izango da.

Denborari dagokionez, gaztelaniazko testu juridiko batzuek aginterako geroaldia erabiltzen dute ia sistematikoki (*podrán, deberán, acatarán...*); eta geuk euskaraz, beste horrenbeste, orainaldiaz baliatzea askoz ere naturalagoa izan daitekeela pentsatu ere egin gabe:

50.2 Jardunbidea presakoa dela adieraz dezan erabakiaren aurka ez da inolako errekurtsorik aurkezterik izango.

50.2 Jardunbidea presakoa dela adierazten duen erabakiaren aurka ezin da inolako errekurtsorik aurkeztu.

Baldintzei erreparatuta, gauza jakina da baldintza horiek hipotetikoak edo errealak izan daitezkeela. Gaztelaniaz lehenengoak ditu gogoko; baina euskaraz ez du zertan beti horrela izan:

33 Eskabide, idazki edo mezu batean interesdun zenbait agertuko balitz, horien ondoriozko jarduketak berariaz adierazitako ordezkariarekin edo interesdunarekin egingo liriateke, eta horren ezean, idazkian agertzen den lehenengoarekin.

33 Eskabide, idazki edo mezu batean interesdun bat baino gehiago bada, interesdun horiek berariaz adierazitako ordezkariarekin edo interesdunarekin egingo dira jarduketak; eta ezer adierazten ez bada, berriz, idazkian agertzen den lehenengoarekin.

– Partizipioa eta gerundioa

Gerundiozko menpeko esaldi gehiegi erabiltzeak, kutsu zaharkitua izateaz gain, luzatu egiten ditu esaldiak⁴¹; hala ere, gaztelaniaz, azken urteotan batez ere, eta ez bakarrik administrazioaren edo zuzenbidearen esparruan, ikaragarri zabaldu da gerundioz amaitutako esaldi-parrafoak idazteko ohitura:

La administración convocante hará pública la relación provisional de aspirantes, concediendo un plazo no inferior a siete días naturales para formular reclamaciones.

Gerundio horietako gehienak gaizki erabiltza daude gaztelaniaz (gogora dezagun gaztelaniaz gerundioa erabili ahal izateko beharrezkoa dela bi ekintzak une berean gertatzea); baina euskaraz –trebeak gara gero horretarako!–, berriro ere estilo trakets horrek liluraturik, barra-barra hasi gara erabiltzen:

Gutun hau idazten dizut zuen ikastaroari buruzko informazioa eskertuz, eta ondoko zerrendako funtzionarioak ikastaroan onartzeko eskatuz.

Gutun hau idazten dizut zuen ikastaroari buruzko informazioa eskertzeko, eta ondoko zerrendako funtzionarioak ikastaroan onartu ditzazuen eskatzeko.

40. Miren Azkarate, "Behartuta izan da vs. behartua izan da/behartu dute", *Administrazioa euskaraz*, 1. zenb., HAAE, 1993ko uztaila, 16. orr.

41. Ikus Aitor Gorostiza, Alberto Telleria, "Erdal gerundio okerren eragina euskaraz", *Administrazioa euskaraz*, 12. zenb., HAAE, 1996ko apirila, 16. orr.

Azken bilerako akta bidali behar da, saio guztiak gainditu dituztenen izen-abizenak agertuko direlarik.

Azken bilerako akta bidali behar da; akta horretan, saio guztiak gainditu dituztenen izen-abizenak agertuko dira.

Egitura pasiboak ugaritzen ari zaizkigu euskaraz, batez ere, itzulpengintzaren bidez.

– Ezezko esaldiak

Errazago ulertzen ditugu normalean baiezko esaldiak ezezkoak baino. Hori horrela izanik ere, ez da harrizkoa ezezko esaldi luzeak aurkitzea testu juridikoetan:

80.3 Interesdunek proposatutako frogetatik argi eta garbi desegokiak izan eta beharrezkoak ez direnak baino ezingo ditu atzera bota jardunbidearen bideratzaileak, beti ere arrazoitutako ebazpen bidez.

80.3 Jardunbidearen bideratzaileak bakar-bakarrik bota ditzake atzera interesdunek proposatutako frogak, argi eta garbi desegokiak eta alferrekoak badira, eta, beti ere, arrazoitutako ebazpen bidez.

– Erlatibozko esaldiak

Koldo Bigurik esaten duen bezala, erdaraz askoz joera handiagoa dago erlatiboa erabiltzeko euskaraz baino⁴². Hala da, bai. Gaztelaniazko testu juridiko bat hartu, eta erlatibozko esaldiak oso ugariak dira; batzuetan, baita elkarren segidan uztartutako erlatibozko kateak ere. Euskaraz bide dexente daukagu erdarazko esaldi horiek beste era batera itzultzeko. Oraingoan, batzuk baino ez ditugu ikusiko:

– Izenlagunak:

Las entidades que integran la administración local...
Toki-administrazioko erakundeak...

– Justaposizioa:

De cada sesión que celebre el órgano colegiado se levantará acta por el Secretario, que especificará necesariamente los asistentes...

Kide anitzeko organoaren bilkura guztietako akta egingo du idazkariak. Akta horretan, nahitaez, honako hauek jaso behar dira: bertaratutakoak...

– Koordinazioa:

Los ciudadanos.../... tienen los siguientes derechos:
.../... A ser tratados con respeto y deferencia por las autoridades y funcionarios, que habrán de facilitar el ejercicio de sus derechos y el cumplimiento de sus obligaciones.

.../... Hona herritarren eskubideak:
.../... Errespetua eta begirunea erakutsi behar diete agintariek eta funtzionarioek, eta laguntza eman, eskubideez baliatzeko eta eginbeharrak betetzeko.

– Menpekotasuna:

Cada Administración Pública establecerá los días y el horario en que deban permanecer abiertos sus registros.

Herri-administrazio bakoitzak ezarriko du zein egunetan eta ordutan egon behar duten irekita erregistroek.

2.3 Testugintza

Testu baten barruan sortzen diren arazo guztiek ez dute zerikusirik ortografia, hiztegi eta morfojoskerarekin. Testuak berak eta testu hori egituratzeko moduak buruhauste galantak eman diezazkigukete. Azter ditzagun arazorik garrantzitsuenak⁴³.

2.3.1 Testuaren antolaketa

“Idaztea berez ez litzateke zaila izango, idazten hasi aurretik honenbeste pentsatu beharko ez bagenu” esan zuen behin Puig I Ferreter jaunak, eta arrazoia zuen. Idaztea kodea ezagutzea baino gehiago da: egoera komunikatiboa aztertu behar da, eta ideiak bildu

42. Koldo Biguri, “Erdarazko erlatiboen itzulpenak”, *Administrazioa euskaraz*, 13. zenb., HAEE, 1996ko uztaila, 16. orr.

43. Gai hauetan interesik baduzue, bada liburu bat ezinbestez irakurri behar dena: Daniel Cassany, *La cocina de la escritura*, Anagrama, Barcelona 1995.

eta egoki antolatu, papereko lerroak buruan daukagunaren isla bihurtu arte⁴⁴.

2.3.2 Informazio berriari sarrera emateko modua

Informazio berria ezin daiteke edonola eman. Informazio berri horrek irakurleak lehendik dakienaren edo lehendik esandakoaren eskutik etorri behar du; hau da, aurretik ezaguna den zerbaitetan txertaturik edo oinarriturik egon behar du⁴⁵. Ondorengo adibidean ikusiko duzue testu baten barruan nolako kateak egiten diren, eta nola kate horiek testuan zehar kontzeptuak identifikatu ahal izateko balio duten:

37.2 *Pertsonen intimitateari buruzko datuak* biltzen dituzten agirietara *persona horiek* bakarrik *hel daitezke*; eta *datuok* osatu gabe edo oker *daudela ikusten badute* zuzentzeko edo osatzeko *eska dezakete*.

Dena dela, ainguraketa edo kate horiek ez dute beti behar bezala funtzionatzen, eta, inoiz edo behin, apurtu egiten dira. Hona hemen, adibide batzuk:

– Elipsia

Testu bat idazten dugunean –kasu honetan testu juridiko bat–, idazlariak informazio bat kentzea edo ez errepikatzea gerta liteke, berak pentsatzen baitu horrela testua arindu egiten dela. Zer gertatzen da kentze horren ondorioz? Bada, testua ulergaitz eta nahasi bihurtu daitezkeela:

13.6 Eskumena ordezkotzan eman duen organoak edozein unetan erreboka dezake (zer baina?).

13.6 Eskumena ordezkotzan eman duen organoak edozein unetan erreboka dezake **eskuordetza hori**.

– Erakusleak huts-hutsik agertzea

Kontzeptu bat bigarren aldiz agertzen denean, tentazio bat izaten dugu: dena delako kontzeptu hori errepikatu beharrean, erakuslea erabiltzea bera izendatzeko. Bada, erakusle horrek informazio garbirik ematen ez badu edota erreferentzia aurreko kontzeptu bati baino gehiagori egiten badio sortzen zaigu arazoa:

70.4 Eskabidegileek nahi adina datu erantsi dezakete, eskabide-ereduan jasotakoak zehazteko eta osatzeko; organo hartzaileak, bestalde, horiek onartu eta kontuan izan behar ditu (zer onartu behar du, eskabidegileak, datuak ala eskabide-ereduak?).

Idaztea kodea ezagutzea baino gehiago da: egoera komunikatiboa aztertu behar da, eta ideiak bildu eta egoki antolatu.

70.4 Eskabidegileek nahi adina datu erantsi dezakete, eskabide-ereduan jasotakoak zehazteko eta osatzeko; organo hartzaileak, bestalde, datu horiek onartu eta kontuan izan behar ditu.

Zenbaitetan, alderantziz gertatzen da: kontzeptu edo ideia bat eman aurretik, nolabait esateko, “aurreikus” egiten dugu ideia hori; hau da, seinale batzuk ipintzen ditugu, irakurleak aurrerago zer aurkituko duen jakin dezan:

37.4 Aurreko azpiatalean ezarritako eskubideak erabiltzea ukatu egin daiteke interes publikoak hala agintzen duenean, besteren interes babesgarriagorik denean, edota legeren batean horrela ezartzen denean.

37.4 Hiru kasutan uka daiteke aurreko idatz-zatietan ezarritako eskubideak erabiltzea: interes publikoak hala agintzen duenean, besteren interesa babesgarriagoa denean, edota legeren batean horrela ezartzen denean.

– Ordezkapen semantikoa

Eskolan irakatsi ziguten hitzak errepikatzea gustu txarrekoa zela, eta dotoreena, berriz, sinonimoak erabiltzea. Hori ondo dago zenbait testu-generotan, baina gure testu juridiko eta administratiboetan zehaztasuna bilatu behar dugu, eta ez diogu beldurrik izan behar hitz bat behin eta berriro errepikatzeari, mezua horrela hobeto ulertuko dela jotzen badugu. Begira zer-nolako testu aberatsa:

Hautagaiek bi azterketa egin beharko dituzte: bata teorikoa eta bestea praktikoa. Lehenik

44. Joseba Lozano, “Nola ekin testu bat sortzeari”, *Administrazio euskaraz*, 2. zenb., HAEE, 1993ko urria, 19. orr.

45. Eskoriatzako Irakasle Eskola, *4. hizkuntz eskakizuneko ikastunitatea*, HAEE (argitaratu gabe).

teorikoa egingo da, eta hori gainditzen duten parte-hartzaileek bakarrik egingo dute praktikoa. Gogoratu ez dela onartuko 18 urtetik azpiko azterketaririk, eta izangaiek curriculuma aurkeztu beharko dutela adieraziko zaien tokian eta orduan. Bertaratutakoei bertaratze-egiaztagiria emango zaie, interesatuek hala eskatzen badute.

– Erakusleen arteko nahasketa

Erakusleen sailkapenari begira euskarak eta gaztelaniak gradu-banaketa bera duten arren, erabileran ez dira beti elkarren pareko. Hori horrela, arazoak sor daitezke:

Juan Antonio García jauna kalera irten, eta akusatua joan zitzaien bila, bere kotxea harturik (noren kotxea, baina?).

Juan Antonio García jauna kalera irten, eta akusatua joan zitzaien bila, haren kotxea harturik (Juan Antonioren, alegia).

2.3.3 Perpausen arteko loturak

Testuaren baitan perpausak elkarri uztarturik egon behar dute; eta lerroaldean artean ere halako lotura bat beharrezkoa da, izan ere, horrek bideak urratzen dizkio ideien garapenari⁴⁶. Horrenbestez, lotura horiek kutsu bat edo bestea ematen diote perpausen arteko erlazioari: aurkaritzazkoa, ondoriozkoa, denborazkoa... Irakurri ondoko adibidea. Letra lodiz doazkizu lotura horietako batzuk:

57.3 Salbuespen gisa, atzeraeragina eman dakieke egintzei, deuseztutako egintzen ordezkioak direnean eta baita interesdunari ondorio mesedegarriak dakarzkionenean ere. Kasu batean zein bestean, atzeraeragina emateko ezinbestekoa izango da, batetik, atzeko zein egunetan jartzen den egintzaren eragin-indarra, ordurako izatea dena delako gertakaria, eta ez beranduago; eta, bestetik, egintzaren eragin-indarrak kalterik ez ekartzea besteren eskubideei edo bidezko interesari.

Hala eta guztiz ere, honetan ere arazoak... ugari. Ikus ditzagun bi nagusienak:

– Loturarik ez

Testu juridikoetan, behar baino gehiagotan, lotura gutxiko testuak aurkitzen ditugu. Errua, beste askotan bezala, gaztelaniazko jatorrizko testuari bota behar:

41.1 Los titulares de las unidades administrativas y el personal al servicio de la Administraciones Públicas que tuviesen a su cargo la resolución o el despacho de los asuntos, serán responsables directos de su tramitación y adoptarán las medidas oportunas

Testu juridikoetan, behar baino gehiagotan, lotura gutxiko testuak aurkitzen ditugu.

para remover los obstáculos que impidan, dificulten o retrasen el ejercicio pleno de los derechos de los interesados o el respeto a sus intereses legítimos, disponiendo lo necesario para evitar y eliminar toda la anomalía en la tramitación de los procedimientos.

Dena dela, euskaraz askatasuna izan behar dugu, testu-antolatzaileen bidez testua egoki egituratzeko; beti ere, jatorrizko bertsiorekin edukia aldatu gabe, jakina. Hona hemen aurreko testuaren itzulpena, baina loturen bidez xamurtuta:

41.1 Gaiak ebazteko edo bideratzeko ardura duten administrazioen unitateetako arduradunak eta herri-administrazioetako langileak dira, zuzenean, izapideen erantzule. Arduradun eta langile horiek, bestalde, neurriak hartuko dituzte izapideetan sor daitezkeen oztopoak kentzeko, galarazteko edo atzeratzeko; hain zuzen ere, oztoporik izan ez dadin interesdunek beren eskubideak bete-betean erabiltzeko edo beren bidezko interesak errespetatzeko. Era berean, hartu beharreko neurriak hartuko dituzte espedienteak izapidetzerakoan okerrik ez izateko eta daudenak kentzeko.

– Lotura desegokiak

Testu-antolatzaileei etekin handia atera dakieke, baldin eta behar bezala eta toki egokian jartzen baditugu. Aitzitik, idazlari askok ez du bete-betean asmatzen loturak aukeratzeko, eta, itzultzen ari delarik, gaztelaniazko loturak itzultzen ditu berez eta besterik gabe, euskarak beste baliabide batzuk eska ditzakeela kontuan izan gabe. Demagun ondorengo zatia itzuli behar dugula:

89.4 En ningún caso podrá la Administración abstenerse de resolver so pretexto de silencio, oscuridad o insuficiencia de los preceptos legales aplicables al caso, aunque podrá resolver la inadmisión de las solicitudes de reconocimiento de derechos no previstos en el

46. Ikus Joseba Ezeiza, *Testuaren Harian. Euskal esaldiaren estilistika*, Gaiak, Bilbo 1996.

LOZANO, J. Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean. *Eleria*. 1, 1997, 55-75

Ordenamiento Jurídico o manifiestamente carentes de fundamento, sin perjuicio del derecho de petición previsto por el artículo 29 de la Constitución.

Kasu horretan, itzulpena testu-antolatzaileetan oinarritzen badugu, testu-antolatzaile horiek baldintzatu egingo dute gure itzulpena:

89.4 Administrazioak ezin izango du inoiz erabakitzeko utzi, kasuan kasu aplikagarri diren lege-aginduen hutsunea, iluntasuna eta murriztasunaren aitzakiatan, eskubideak aitortzeko eskabideak onartezintzat jo baditzake ere, eskubide horiek ez badaude ordenamendu juridikoan aurrikusita edo argi eta garbi falta bazaie oinarria, Konstituzioaren 29. atalean jasotako eskari-eskubidearen kalterik gabe.

Baina, askatasunez jokatzeko badugu, eta itzulpen-prozedurez baliatzen bagara (transposizioa, baliokidetasuna, egokitzapena...), testu-antolatzaileak ere, askotan, aldatu, eta emaitzak askoz ere naturalagoak izango dira:

89.4 Administrazioak beti eman behar du ebazpena, hau da, ezin ditu kasuan kasu aplikagarri diren lege-aginduen hutsunea, iluntasuna edo murriztasuna aitzakiatzat hartu ebazpenik ez emateko. Hori horrela bada ere, administrazioak onartezintzat jo ditzake eskubideak aitortzeko eskabideak, eskubide horiek ez badaude ordenamendu juridikoan aurrikusita edo argi eta garbi falta bazaie oinarria. Hala ere, interesdunek beti izango dute Konstituzioaren 29. atalean jasotako eskari-eskubidea.

2.3.4 Testuaren koherentzia

Litekeena da testu bat gramatika aldetik zuzena izatea, informazio berria egoki ematea, eta perpausen arteko loturak zaintzea; eta, era berean, testu horrek koherentziarik ez izatea irakurlearentzat. Azter dezagun ondorengo adibidea⁴⁷:

Jakinarazten dizut Udaltzako zure baimen-eskaera onartu duela. Hori dela eta, idazkaria naizen aldetik, jakinarazten dizut, Udaltzako hartutako erabaki hori atzera bota nahi baduzu, epailetara jo beharko duzula Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztuz, agiria jasotzen duzunik bi hilabeteko epean. Era berean adierazten dizut errekurtso horretaz gain bestelako errekurtsorik ere jarri ahal duzula.

Gauza jakina da idazkariak errekurtsoa egitearen aukeraren berri eman behar duela, ebazpena edo erabakia herritarraren aldekoa izanda ere. Dena den, horrelako testu batek, dagoen horretan behintzat, nahastu egin dezake hartzailea, azkenean ez baitaiki udaltzako aldeko ala kontrako epaia eman duen.

2.3.5 Testuaren tonua

Urrutirago goaz oraingoan. Testu bat zuzena, behar bezala egituratua, eta koherentea izan daiteke; baina baliteke tonoa ez asmatzea. Nire ustez, horri dagokionez, bi izaten dira testu juridiko batzuetan aurki daitezkeen akatsik nagusienak:

– Derrigortasun kutsua

Testu juridikoetan, maiz, aginduak, zereginak eta eginbeharrekoak ezartzen dira; baina eginkizun horiek emateko modu asko dago, eta, gauza bera adierazteko, bide batzuk besteak baino leunagoak izaten dira:

Interesdunak derrigortuta daude lege honetan nahiz besteetan ezarritako epe-mugak eta epeak betetzera.

Interesdunak bete egin behar dituzte lege honetan nahiz besteetan ezarritako epe-mugak eta epeak (leunagoa).

– Ikuspegi negatiboa

Batzuetan zuzenbideko idazkiei, eta baita administrazioekoei ere, kutsu negatiboa darie. Saiatu egin behar dugu, nire iritziz, alde positiboa azpimarratzen irudi negatiboaren kaltetan⁴⁸:

Ezinezkoa da azterketaren emaitzak plazaratzea, epea bukatu arte. (negatiboa)
Epea bukatu bezain laster plazaratuko ditugu azterketaren emaitzak. (positiboa)

Ezingo da azterketarik egin, NAN aurkezten ez bada. (negatiboa)
Nahikoa da NAN aurkeztea, azterketa egin ahal izateko. (positiboa)

2.4 Testu juridikoen diseinu berria⁴⁹

Orain arteko testu juridiko gehienei begiradaxo bat egitea nahikoa da, itxura eta

47. Adibidea ikasmaterial honetatik moldaturik dago: "Testugintza", *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*, HAAE, Gasteiz 1997.

48. Institute for International Research, *Cómo mejorar su comunicación escrita* (lan-koadernoa), Madrid 1996.

49. Diseinu kontuetan sakontzeko ikus, besteak beste:

- Australian Government, *Style manual for authors, editors and printers*, Australian Government Publishing Service, Canberra, 1992.
- Douglas Martin, *El diseño en el libro*, Pirámide, Madrid 1994.
- University of Reading, *Forms design. A guide to reading and reference material*, Forms Information Centre (University of Reading), Reading, 1983.
- Parliamentary Counsel's Office & the Centre for Plain Legal Language, *Review and redesign of NSW legislation*, New South Wales Government, Australia 1994
- Law Reform Commission of Victoria, *Access to the Law*, 1990.

egitura aldetik, nahikoa traketsak direla konturatzeko. Hori horrela izanik ere, legelariak oraindik ere atxikitzen diote tradizioak eta ohiturek bedeinkatutako diseinu zaharrari. Diseinu kontuetan, legelari askorentzat berrikuntza eta gehiegizko ausardia dena, herritar gehienentzat zentzuzkoa baino ez da⁵⁰.

Testu juridiko gehienak itogarriak izaten dira, trinkoegiak: ez dute arnasten. Lerroaldeak erabiltzen badira –ez baita hori beti gertatzen– ez da tarterik uzten lerroaldean artean. Marjinak txikiak dira; letra, askotan, ikustezina; lerroak, estuak. Hitz batean, testu horiek atzera eragiten diote baita irakurle gogotsuenari ere.

Horrenbestez, ahaleginak egin behar ditugu gure idazkien itxura erakargarriagoa izan dadin; horrelakorik egiten ez dugun bitartean, segidakoa bezalako inprimakiak betetzen jarraituko dugu:

.....jauna/andrea,
(e)an,(e)n emandak
NAN zenbakiduna,(e)an,
(e)n jaioa,telefono-zenbakiduna,
(e)n bizi[eta abar, eta abar, eta abar]

Beste era askotara egitea badagoela bururatu gabe:

Izen-abizenak:	NAN zenbakia:
NAN eman den herria:	NAN eman den eguna:
Jaioteguna:	Jaioterrria:
Etabar:	Etabar:

**... euskaraz
 askatasuna izan behar
 dugu, testu-
 antolatzaileen bidez
 testua egoki
 egituratzeko.**

3. Kalitatearen onurak

Testu juridikoen kalitatea zaintzeak –komunikaziorik, hizkuntza, testugintza, diseinua...–, ahalegina eskatu arren, zenbait onura ekarriko ditu ezinbestean.

Alde batetik, denbora irabaziko dugu. Egia esateko, hasiera batean denbora luzeagoa beharko genuke estilo berrira egokitzeko. Nolanahi ere, ulertu egin behar dugu gutxi zaindutako edo gaizki idatzitako testu juridikoak ulertzeko denbora behar dela: irakurketa bakarria ez da nahikoa esanahiaz behar bezala jabetzeko. Hortaz, zenbat eta kalitate handiagoa izan idazki bat, orduan eta denbora gutxiago ulertzeko.

Beste alde batetik, dirua aurreztuko dugu. Aurrekoan esan bezala, aurrezpena ez litzateke berehalakoa izango; izan ere, idazkien kalitatea benetan zaindu nahi badugu, beharrezkoa izango da hasiera batean diru-inbertsio bat egitea, idazlarien prestakuntzak eta lan-erritimoa aldatzeak dakarten kostuari aurre egiteko. Dena dela, geroari begira, garbi dago kalitatezko testu ulergarriak erabiltzeak dexente murriztuko dituela kostuak. Hala diote, behintzat, mundu zabalean egindako saioek⁵¹. Nola? Erraza da. Paper gutxiago erabiliko da⁵²; langile gutxiago beharko dira gaizki diseinatutako inprimakiek herritarrengan sortutako galderei erantzuteko; gutxiagotan jo behar izango da auzitegi-tara gaizki-ulertuengatik edota interpretazio anitzengatik, etab.

Eta, azkenik, onuragarria izango da gizartearentzat; azken batean, diskurtso juridikoa aldatzen badugu, erraztasunak emango dizkiogu herritarri, bere gizarteari eragiten dioten erabaketan parte har dezan: sujeta pasiboak izatetik eragile aktibo izatera pasa dadin, alegia.

4. Amaiera

Artikulu honetan bildutako hausnarketa eta gogoetak abiapuntu baino ez dira. Hemendik aurrera, zuzenbidearen ingurumarian mugitzen diren profesional guztiei dagokie iritziz, ekarpenez eta elkarlanean proposamen horiek osatzea.

Euskarak ez du oraindik erro sendorik zuzenbidean. Hori, larria iruditu arren, abantaila ere izan daiteke, aukera ematen baitugu abiapuntura itzultzeko eta lan egiteko modua aldatu behar den ala ez aztertzeko. Edozein modutan ere, jakin ezazue zeregin horretan beti izango duzuela gure laguntza.

50. David C. Elliott, "Innovative Legislative Drafting", *Michigan Bar Journal*, 1994 urtarrila, 73. bolumena, 1. zenb., 40.-43. orr.
 51. George Maher, "Hizkera iluna argitu nahian", *Administrazioa euskaraz*, 10. zenb., HAEE, 1995eko urria, 6. orr.
 52. Esate baterako, Manchesterreko Poliziaren jarduera-liburu zaharrak 750.000 hitz zituen, eta 10 bat kilo pisatzen zuen. Orain, testu hori aztertu eta egokitu ondoren, 60.000 hitz ditu eta zentimetro bateko lodiera.

